

01 NORA HOA?

PRIMERAN! C1.1

9.1 Elefanteen rolak



MING

Elefante alferra zara, mugitzea batere gustatzen ez zaion horietakoa. Oso haserre zaude eta errudunak egindakoa ordaindu beharko lukeela uste duzu baina, era berean, konplikazio handirik ez duzu nahi.

Egin beharrekoak: Tarteka beste elefante bati begira geratuko zara denbora luzez.

MEI

Elefante gaztea zara, abenturazalea. Bidaia gustatu zaizu eta ez zara inor zigortzearen aldekoa.

Egin beharrekoak: Jendea alaitzen saiatuko zara.

ZHAO

Elefante serioa zara. Horrelako akatsak ez dituzu barkatzen. Erruduna gogor zigortzearen aldekoa zara.

Egin beharrekoak: Gainerakoei, tarteka, ez dakitela zertaz hitz egiten ari diren esango diezu.

LI

Elefante parrandazalea zara eta diskotekak deskubritzeko balio izan dizu bidaia. Horregatik, horrelako bidaia kaotiko gehiagoren aldekoa zara.

Egin beharrekoak: Bilera parranda bilakatzen saiatuko zara hainbat aldiz.

XIA

Elefante distraitua zara. Ez zaizu gaia asko interesatzen eta beste gauza batzuei buruz hitz egiten saiatuko zara denbora guztian.

Egin beharrekoak: Tarteka, kantuan hitz egingo duzu.